



SEGURTASUN SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen
Sailburuordetza
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen
eta Hauteskunde Prozesuen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Administración
y Servicios
Dirección de Régimen Jurídico, Servicios
y Procesos Electorales

EUSKADIKO ZIBERSEGURTASUN AGENTZIAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea aurreikusi du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133.1 artikuluan, eta Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, legearen proiektua edo aurreproiektua egin baino lehen, kontsulta publikoa bideratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarrita. Herritarrei gonbidapena egingo zaie iritzia eman dezaten, alderdi hauekin lotuta.

- Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- Arauaren xedetak.
- Arauaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Hori guztia betetzeko, eta araua egin aurretik, idatzi honen bitartez, gonbidapena egiten zaie herritarrei eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten. Eranskina Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-oholean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den egunean.

(Elektronikoki sinatua)

Sin.: Goitz Aizpuru Lizarralde
ARAUBIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUTESKUNDE PROZESUEN
ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastian, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

tef. 945 01 87 58 - Fax 945 01 87 53 -





**EUSKADIKO ZIBERSEGURTASUN
AGENTZIAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA
PUBLIKOA.**

<p>EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.</p>	<p>Zibersegurtasunaren zeharkakotasunak eta garrantziak ezinbestekoa egiten dute informazioaren eta komunikazioaren arloan eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa, baita segurtasun fisikoaren eta pertsonen arloko erakunde arduradunen artekoa ere. Koordinazio hori beste eskumen-esparru batzuetan (Estatuan, esate baterako) jarraitutako estrategiarekin eta Europar hartutako ekimenekin bat etorri gauzatu behar da, interesa baitago zibersegurtasuna funtsezkotzat jo eta Europar Batasunaren helburu estrategikoak betetzeko.</p> <p>Lege-aurreproiektu honen bidez, Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortu nahi da, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, nortasun juridiko propioa duena, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa.</p>
<p>ARAU ONESTEAREN PREMIA ETA EGOKITASUNA.</p>	<p>Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat organismo daude zibersegurtasunaren esparruan dihardutenak, bai autonomia-, foru- eta toki-mailan.</p> <p>Alde horretatik, ikus daiteke, era berean, Euskadiko eta bere lurralde historikoetako sektore publikoan zibersegurtasunaren alorrean dauden baliabide eta ahalmenak jarduera operatiboetara daudela bideratuta, nahiz eta araudien eta prozesuen sustapenean, aholkularitzan eta proposamenean ere identifikatu diren jarduera batzuk.</p> <p>Hala ere, zibersegurtasunaren estrategia, gobernu eta kudeaketa komunaren esparruan hutsune bat aurkitu da, eta teknologia berrien eta digitalizazioaren sektorean izandako aurrerapen handia ikusita, hutsune hori osatzea komeni da.</p> <p>Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da esparru hori ekimen komun baten bidez betetzea, lehendik dauden baliabideak, gaitasunak eta ekimenak koordinatuko dituen ekimen batekin eta aukera emango duena ingurune globalak eta zerbitzuen babesean, informazioaren eskaintzan eta erabileran Euskadiren erresilientziak eskatzen duen zibersegurtasunaren heldutasun-maila handitzeko. Hori guztia, euskal sektore publikoaren, herritarren eta enpresen sarearen babes-maila handitzeko eta optimizatzen.</p> <p>Horretarako, garrantzi handia du Euskadirentzat zibersegurtasuneko organo komun bat bultzatzeak,</p>



	Erkidegoan estrategia bateratu bat harmonizatu eta gobernatuko duena.
ARAUAREN XEDEA.	Euskadiko Zibersegurtasunaren Agentzia sortu eta martxan jarrita, bermatzen da Eusko Jaurlaritzak gaur egungo informazioaren gizartean sortzen diren zibersegurtasunaren arloko mehatxuei eta arriskuei aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak izango dituela.
IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK ETA EZ- ERREGULATZAILEAK.	Neurri arau-emaila espezifikoa bat lantzea ezinbestekoa da, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.